

DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO ETA ANTZOKI ZAHARREKO MAKINA ESZENIKOEN ETA IKUSKIZUNEN ARGIZTAPENAREN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioak mantentzeko zerbitzua.

Zerbitzuaren helburua da aipatutako instalazioen funtzionamendua egoera hobezinean kontserbatzea, betiere instalazioen fidagarritasuna, segurtasuna eta sendotasuna altua dela ziurtatuta.

Horrez gain, zerbitzuaren baitan garatuko diren lanak lagungarriak izango dira istripuak eta/edo pertsonak arriskuan jar ditzaketen egoerak eragin ditzaketen akatsak eta matxurak gutxitzeko. Bestalde, zerbitzuari esker jarduera eszenikoak behar den bezala garatzea eragozten duten edo jardueren kalitate artistikoa kaltetzen duten baina arriskurik ez duten gorabeherak ekidingo dira, ahal den neurrian.

Baldintza Teknikoen Orri honetan makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioak mantentzeko zerbitzuekin lotuta eskaini beharreko estaldura eta baldintzak zehazten dira (3.1. atalean adierazten dira). Hain zuzen ere, "Makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioaren inbentarioa" izeneko 1. eranskinean adierazi da informazio guztia. Alderdi horiek guztiak biltzen dituen Mantentze Plan Orokor bat egituratu, landu eta eskaintzarekin batera aurkeztuko dute lizitatuzaileek.

2. MANTENTZE PLAN OROKORRA

Lizitatuzaileek **Mantentze Plan Orokor** bat aurkeztuko dute eskaintzarekin batera, eta alderdi hauek barne hartuko dituzte gutxienez:

- Mantendu beharreko instalazioen **inbentarioa**. (Ikus 1. eranskina)
- Instalazioen **banakapena**: ekipoak eta elementuak. Mantentzearen xede diren instalazioak ekipoen arabera banakatuta adieraziko dira. Ekipo bat baino gehiago bada, instalazioan funtzio oso eta homogeneo bat betetzen duten elementuak multzokatuta adieraziko dira. (Ikus 1. eranskina, orientabide moduan)
- Ekipo bakoitzari dagokion mantentze-protokoloa adieraziko da. Horretarako, **Ekipoaren Fitxa Teknikoa** sortuko da eta alderdi hauek definituko dira bertan:
 - Mantentzea berrikusteko protokoloa. Ekipo bakoitzean egin beharreko eragiketen zerrenda, berrikusteko maiztasuna eta gauzatzeko aurreikusitako denbora.

1. eranskinaren arabera elementu bakoitzari dagozkion lanak barne hartuko dira, gutxienez, eskainiko den eragiketen zerrendan.

- Eragiketak gauzatzeko aurreikusitako baliabide teknikoak eta giza baliabideak.
 - Noizean behinkako lanak eta/edo lan espezializatuak egiteko aurreikusitako baliabideak.
 - Arriskuaren identifikazioa eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Neurriak.
- Fitxa Tekniko guztiekin **Berrikuspenen Programa** bat osatuko da. Informazio hau barne hartuko da bertan:
 - **Aldizkako Oinarrizko Mantentze Plan bat.**
 - **Geldialdi Teknikoen Mantentze Plan bat.**
 - Ezarritako plangintzaren arabera, berrikuspen bakoitzari dagozkion **Lan Aginduak** sortuko dira, eta edozein modutan, kasuan-kasuan Fitxa Teknikoan definitutako baldintzak beteko dira.

Mantentze Plan Orokorrak 3.1 atalean adierazitako zerbitzuak eta kontrola arin eta eraginkortasunez kudeatzeko bidea ahalbidetuko du, eta Orri honetan adierazitako guztia etengabe, osorik eta ondo gauzatzeko beharrezkoa den alderdi oro barne hartuko du.

Salbuespenak salbuespen, eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko programazioak eskatzen badu, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietateak (VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA aurrerantzean) erreserbatuta du enpresa kontratistarekin adostutako plangintza aldatzeko aukera, mantentzearen xede den espazioaren behar eszenikoen eta programazio-beharren arabera.

Halaber, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk uste badu eskaintzen den mantentze-zerbitzuak ez dituela betetzen arriskuak prebenitzeko baldintza egokiak edo ekipoek ez dituztela betetzen ikuskizunak berme guztiekin eskaintzeko beharrezko baldintzak, enpresa kontratistari eska daskioke ekipoen fitxa teknikoak aldatzeko.

3. GARATU BEHARREKO JARDUERAK ETA PRESTAZIOAK

3.1 Zerbitzuak

Orri honen xede gisa garatuko diren zerbitzuak dira:

- Aldizkako Oinarrizko Mantentzea
- Geldialdi Teknikoen Mantentzea
- Matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua
- Laguntza Teknikoko Zerbitzua

3.2 Eragina

Zerbitzuen baitan daude makina eszenikoak eta ikuskizunen argiztapena osatzen dituzten elementu guztiak, eta "Makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioaren inbentarioa" izeneko 1. eranskinean aipatzen dira.

Zerbitzuen baitan daude, halaber: ekipo horiei dagozkien elementuak, hala nola kontrolaren eta potentziaren kaxa elektrikoak, zerbitzari informatikoak, eusteko metalezko egiturak, segurtasun-elementu gehigarriak, mantentze-elementu gehigarriak eta abar.

Bestalde, erakunde kontratugileak jakinarazten badu, zerbitzuen eskaintza zabaldu egingo da, automatikoki, eskuratzen diren instalazio berrietara, betiere gaur egun Orri honen I. eranskinean barne hartutako instalazioen kopuruaren % 30 gaingitzen ez bada. Xede horrekin, prezioei dagokienez Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriko 7. Klausulan xedatutakoa jarraituko da.

3.3 Zerbitzuen edukia

Jarraian, eskainiko diren zerbitzuen edukia modu zabalago batean garatu da:

3.3.1 Aldizkako Oinarrizko Mantentzea

Mantentze honen funtsezko helburu dira instalazioak segurtasun, fidagarritasun eta prestazioekin lotuta baldintza hobezinetan kontserbatzeko mantentze prebentiboa, araudiaren arabera eta prediktiboa egiteko programatutako jarduerak.

Ekipoetan egin beharreko mantentze programatuari dagozkion jarduerak garatuko dira eta kontratistak eskainitako Mantentze Plan Orokorrean adieraziko dira guztiak.

Hala ere, zerbitzuen eskaintza antzokien programazioaren arabera alda daiteke eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aukera du enpresa kontratistarekin adostutako plangintza aldatzeko, mantentzearen xede den espazioaren behar eszenikoen eta programazio-beharren arabera.

Kontratistak bi teknikari atxikiko ditu, gutxienez, zerbitzua eskaintzeko, Baldintza Teknikoen Orriko 4.7. Klausulan adierazten den moduan, betiere antzokien erabilera-programaren arabera, eta antzokien teknikariburuarekin ordutegi bat adostu eta finkatuko da alde zuzenetik, jarraian adierazten den moduan:

- Victoria Eugenia Antzokia: Hiru hilean behin hiru egun jarraituko bisita bat gutxienez, lanaldi osoan (7:30 ordu/eguna gutxienez)*, hiru hiru hileko guztira (laugarren hiru hilekoan geldialdi teknikoaren mantentzearen barruan sartuko da aipatutako aldizkako oinarrizko zerbitzua). Horrez gain, sei hilean behin egun bateko bisita bat gutxienez, lanaldi osoan (7:30 ordu/eguna gutxienez), Termiser plataformak berrikusteko.
- Antzoki Zaharra: Lau hilean behin bi egun jarraituko bisita bat gutxienez, lanaldi osoan (7:30 ordu/eguna gutxienez)*, bi lauhileko guztira (hirugarren lauhilekoan geldialdi teknikoaren mantentzearen barruan sartuko da aipatutako aldizkako oinarrizko zerbitzua).

Ekipamendu elektrikoaren mantentzeari dagokionez, orokorrean ekipoak deskonektatzen diren eragiketa guztiak antzokien jardueraren garapenaren gainean eragiten ez denean burutuko dira, eta antzokien teknikariburuaren baimena beharko da, edozein kasutan.

Kontratua gauzatzeko atxikitako lan-taldeak Mantentze Orokorren ardura duen Ingeniariaren gainbegiratupean lan egingo du, Baldintza Teknikoen Orriko 4.7. Klausulan adierazten den moduan. Kontratatik eskatzen duen kasuetan izan ezik, ez da halabeharrezkoa izango bertaratzea.

*Ordu kopuruan ez da barne hartzen hamaiketakoa egiteko denbora

3.3.2 Geldialdi Teknikoen Mantentzea

Mantentze honen funtsezko helburu dira instalazioak segurtasun, fidagarritasun eta prestazioekin lotuta baldintza hobezinetan kontserbatzeko mantentze prebentiboko eta araudiaren arabera jarduera programatuak. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren jarraibideen arabera burutuko dira antzokian geldialdi teknikoak egiten denean, jarduerarik ez duenean izan ohi da normalean, edo jarduerarik badago, jarduera-programak aukera ematen duenean. Salbuespena izango dira VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk adierazten dituen kasuak.

Mantentze zorrotzena da eta aldizkako oinarrizko mantentzeari berez dagozkion lanez gain, aurretik egindako berrikuspenetan egiteke geratutako lan guztiak barne hartzen ditu. Modu berean, antzezpenen ordutegiagatik ezinezkoa izan denean zuzentzeke geratu diren eta berrikuspen arruntetan azpimarratu diren akats guztiak zuzenduko dira. Antzokietako teknikariburuak erabakiko du egin beharreko lanen lehentasuna.

Kontratatik zerbitzua eskaintzeko atxikitako bi teknikariek eskainiko dute zerbitzua, gutxienez, Baldintza Teknikoen Orriko 4.7. Klausulan adierazten den moduan, eta antzokien teknikariburuarekin ordutegi bat adostu eta finkatuko da aldez aurretik, jarraian adierazten den moduan:

- Victoria Eugenia Antzokia: gutxienez 5 egun jarraituko bisita bat, lanaldi osoan (7:30 ordu/eguna gutxienez)*.
- Antzoki Zaharra: gutxienez 3 egun jarraituko bisita bat, lanaldi osoan (7:30 ordu/eguna gutxienez)*.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk geldialdi teknikoak egiteko egunak jakinaraziko ditu, egin baino bi hilabete lehenago, gutxienez. Horren arabera, kontratatik geldialdi teknikoaren plangintza aurkeztuko du aldez aurretik, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk onartzeko. Edozein kasutan, plana egokitu egingo da antzokietako jardueraren programazio berrien ondorioz sor daitezkeen beharren arabera.

Kontratua gauzatzeko atxikitako lan-taldeak Mantentze Orokorren ardura duen Ingeniari baten gainbegiratupean lan egingo du geldialdi teknikoak egiten den bitartean.

*Ordu kopuruan ez da barne hartzen hamaiketakoa egiteko denbora

3.3.3 Matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua

Zerbitzu honen helburua da kontratatik bermatzea beharrezkoak diren bitarteko egokiak egongo direla, baldin eta matxura batek eragindako geldialdirik badago. Horrela bada, zerbitzuak ahalik eta azkarren jarriko dira berriro martxan, eta

edozein kasutan, antzeppen eta entsegu eszenikoetan erabilgarri egongo direla ziurtatuko da, eta kontratistaren langileak bertaratuko direla, beharrezkoa bada.

Matxurak konpontzeko eskaerak Antzokiko teknikariek egingo dituzte, telefonoz zein posta elektronikoz. Enpresa kontratistaren langileak instalazioetara bertaratuko dira konponketa-eskaera jaso eta ondorengo 48 orduetan. Erantzuteko denbora hobe dezakete lizitatzailerak aurkezten dituzten eskaintzetan.

Larrialdi-zerbitzuaren estaldurari dagokionez, kontratistak bermatu egiten du matxurak konpondu egingo dituela eta instalazioak martxan edukitzeko beharrezkoak diren jarduerak garatuko dituela. Horretarako eskainiko duen zerbitzuak baldintzak hauek edukiko ditu, gutxienez:

- Larrialdi-zerbitzuaren telefonoa; gutxienezko ordutegia: 8:00-22:00, 365 egun/urtean. Ez da onartzen alarmen telefonogune hartzailerik.
- Laguntza-taldea, erantzuteko denbora: ordu batetik behera. Kontratistari jakinarazpena bidaltzen zaionetik (telefonoz edo posta elektronikoz), kontratista VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN instalazioetara bertaratzen den arte.

Baldintza Teknikoen Orriko 4.7. Klausulan adierazten den moduan, kontratistak zerbitzu hauek eskaintzeko gutxienez bi teknikari atxikiko ditu. Teknikari horiek aldizkako oinarritzko mantentzearen eta geldialdi teknikoaren zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren gutxienezko baldintzak beteko dituzte. Aipatutako mantentze-zerbitzua eskaintzen duten pertsona berak izan daitezke.

3.3.4 Laguntza Teknikoko Zerbitzua

Kontratistak aholkularitza eskainiko du, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI kosturik eragin gabe, kontratuaren xede diren gaietara eta zerbitzuei buruz, eta txostenak landuko ditu berak egiten duen kudeaketarekin zuzenean zein zeharka erlaxionatutako edozein alderdiri buruz, edo instalazioen funtzionamendu egokia eragin dezakeen edozein arazori buruz, eta zehazkiago, instalazioak optimizatzeko, segurtasuna hobetzeko edo indarrean dagoen araudi teknikora egokitzeko beharrezkoak diren hobekuntzei, aldaketei edo instalazio berriei buruz.

Bereziki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI etengabe jakinaraziko zaio kontratuaren xede diren instalazioen mantentzea eragiten duen araudiari buruzko informazioa.

4. ZERBITZUAK ESKAINTZEKO BALDINTZAK

4.1 Zerbitzuaren kudeaketa informatizatua (Ordenagailuz Lagundutako Mantentzearen Kudeaketa OLMK)

Kontratistak zerbitzuaren kudeaketa informatizatua egingo du, informazioaren kudeaketa eta tratamendua optimizatzeko. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ez du inolako gasturik jasango.

Kontratistak jarriko du beharrezkoa den sistema informatikoa, betiere VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aldeztu aurretik onartu eta gero, eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontratistaren erantzukizuna izango da sistemaren instalazioa eta mantentzea, eta ondorioz, kontratistaren erantzukizuna izango dira, halaber, (i)

beharrezkoa den hardwarea instalatzea, mantentzea eta ordezkatzea, beharrezkoa denean; eta (ii) erabilitako softwarearen edozein elementuren baimenak eta eskubideak lortzea eta berritzea, bai eta softwarea eguneratzea ere, beharrezkoa denean.

Kudeaketa informatizatuko sistema horrekin sortutako datu guztiak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN jabetzakoak izango dira, eta ondorioz, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARA zuzenean sartzen den datu-base batean gordeko dira. Programak aukera emango du bere datuak Excel, Access edo testu lauko formatu batera esportatzeko.

Kudeaketa informatizatuak aukera emango du, besteak beste, kontrol sistematikoa egiteko, lan-aginduak kudeatzeko, stock-ak kudeatzeko, mantentze-eragiketak hobeto ezagutzeko, mantentze-eragiketetan erabilitako denboren ezaguera hobetzeko, matxuren analisia eta jarraipena hobetzeko eta abar.

4.2 Zerbitzura lotutako dokumentazio teknikoaren kudeaketa

Kontratatistak mantentze-zerbitzuen kudeaketaren urteko laburpen bat aurkeztuko du, geldialdi teknikoaren ondoren eta urte bakoitzaren abenduaren 30a baino lehen.

Oro har, kontratatistak honako dokumentazio hau ziurtatuko du, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARAKO inolako kosturik eragin gabe:

- Zerbitzuaren xede den instalazioaren informazio teknikoa eguneratuta edukitzea: proiektua, memoria deskribatzailea, eskemak, planoak, ekipoen inbentarioa, katalogoak eta ekipoen ezaugarri teknikoen fitxak, fabrikatzaileek eta instalatzaileek emandako zerbitzu-jarraibideak, eta kasuan-kasuan beharrezkoa den dokumentazioa osatuko eta/edo sortuko da. Dokumentazio hori guztia VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN jabetzakoak izango dira.
- Mantentze-fitxa teknikoak mantentzea eta eguneratzea.
- OTak erregistratzea.
- Aldizkako txosten teknikoak: garatutako jarduerak, erabilitako denborak, OT egoera amaitugabeak, erabilitako materialen erregistroa, eraginkortasun-ratioak, Otetan lortutako parametro desberdinen irakurketa.
- Berariazko txosten teknikoak eta matxurak konpontzeko jarduerak eta jarduera zuzentzaileak: efektuak, arrazoiak eta konponbideak.
- Aldaketak, zabalkuntzak eta erreformak erregistratzea.
- Baimendutako lan gehigarrien txosten teknikoak.
- Urteko Mantentze Memoria.
- Instalazioen amaierako egoeraren eta urteko prestatzearen ziurtapena idaztea.

4.3 Materialen kudeaketa: ordezeko piezak eta kontsumigarriak

Kontratatistak kudeatuko ditu ordezeko piezak eta kontsumigarriak, baita materialen erosketak ere, betiere VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aurrekontua onartu eta gero eta indarrean dagoen araudiaren arabera ezar daitezkeen kontratazio-arauak eta – prozedurak errespetatuta. Fakturazio-sistema kontsumoaren araberrako fakturazioa

kontuan hartuta egingo da. Fakturatuko diren prezioak Tarifec katalogoko prezio ofizialak izango dira, % 15eko deskontu batekin. Edozein kasutan, ordezeko pieza ez badago kodetuta aipatutako katalogoan, edo zalantzarik edo bat ez datorren preziorik badago, gardentasun bidez fakturatuko da eta fabrikatzailearen edo hornitzailearen kostuaren faktura aurkeztuko da.

Kontratatik urtero proposatuko ditu segurtasun-stockak eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK onartu egingo ditu.

4.4 Zerbitzua gauzatzeko tresnak eta ekipoa

Kontratatik orriaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko hornidura nahikoa eta kalitatezkoa edukiko du tresna, erreminta, bitarteko eta ekipo gehigarriek dagokienez, eta eskaintzan zehaztuko dira guztiak. Materialak gaur egun indarrean dagoen araudia beteko du eta araudiak ezartzen dituen berrikuspen eta/edo homologazio guztiak edukiko ditu.

4.5 Laneko arriskuen prebentzioa

Lan egitean gaur egun laneko arriskuen prebentzioaren esparruan indarrean dagoen legeria errespetatuko da, eta kontuan hartuko dira alderdi hauek, besteak beste:

- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK antzokian izan daitezkeen arriskuen prebentziorako ezarritako jarraibideak eta neurriak errespetatuko dira larrialdi-egoeretan.
- Burutzen diren lanei dagokienez, laneko arriskuen ebaluazioa egingo da, kasuan-kasuan lanen ezaugarriak eta lantokiaren ezaugarriak kontuan hartuta eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK zehaztutakoaren arabera.
- Lanak burutzeaz arduratzen diren langileek prestakuntza eta informazio egokia edukiko dute aurretik aipatutako alderdiei dagokienez eta dagokien lanpostuak eskatzen duen gaitasun medikoa edukiko dute, halaber, osasun-zaintzaren barruan.
- Enpresa esleipendunak Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean Antolamendu Modalitate bat duela ziurtatuko du (Besteren Prebentzio Zerbitzua edo beste bat), indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Enpresak prebentzio-jarduerak koordinatzeko lanak garatzeko izendatzen duen langileak prestakuntza egokia edukiko du, Laneko Arriskuen Prebentziorari buruzko 31/95 Legearen eta berau garatzen duen araudiaren arabera.

4.6 Instalazioak garbitzea eta hondakinak kudeatzea

Kontratatikaren ardura izango da espazio eszenikoa jasotako egoera berean uztea eta bera ardura izango da bere lanen ondorioz utzitako edozein hondakin kentzea.

Kontratatik VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK hondakinak kudeatzeko ezarritako prozedurak betetzen direla ziurtatuko du. Hondakinen kudeaketari buruz indarrean dagoen araudia beteko du.

4.7 Kontratua gauzatzeko atxikiko diren langileak

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIko makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioen mantentzeaz arduratzen diren langileek beharrezkoa den espezializazioa edukiko dute eta garatuko duten lanpostuak berezkoak dituen jardueretan trebatuta egongo dira.

Zehazki, aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua gauzatzeko kontratistak pertsona hauek atxikiko ditu kontratura, gutxienez:

- Teknikari espezialista elektro-mekaniko bat, gutxienez 3 urteko esperientzia duena espazio eszenikoetako makinaren muntaian, doikuntzan eta konponketan.
- Teknikari espezialista elektriko bat, gutxienez 3 urteko esperientzia duena espazio eszenikoen instalazio elektriko eta elektronikoetan, industria-tresnerian, abiadura-erregulagailutan eta maiztasunetan.
- Goi-mailako ingeniari bat, gutxienez 3 urteko esperientzia duena espazio teknikoetan makina eszenikoen mantentzean.

Horrez gain, kontratistak gutxienez bi teknikari atxikiko ditu matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua eskaintzeko. Bi teknikari horiek aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua eskaintzen duten teknikariek bete beharreko baldintzak berak beteko dituzte.

Matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua gauzatzeko atxikiko diren teknikariak aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua eskainiko duten pertsona berak izan daitezke.

Hain zuzen, positiboki baloratuko da pertsona berberak izendatzea matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua gauzatzeko eta aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua gauzatzeko.

Zerbitzuak kalitatezkoak direla ziurtatzeko, instalazioak ezagutzen dituzten langileak enplegatuko dira, eta kontratura atxikitako langilerik ordezkatu behar bada, antzokien teknigariburuak ontzat eman behar du ordezkapena.

Kontratistak zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) eskainiko duela bermatu beharko du.

Donostian, 2013ko maiatzaren 6an



Amaia Almirall
Gerentea